

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

54/2018 Mozioa, uztailaren 11koa, NPB laguntzen eskaerei buruzko informazioa ematen duen sistema bat gauzatzearen gainean

Arabako Batzar Nagusiek, 2018ko uztailaren 11n egindako osoko bilkuran, ondorengo mozioa onetsi zuten:

54/2018 Mozioa, uztailaren 11koa, NPB laguntzen eskaerei buruzko informazioa ematen duen sistema bat gauzatzearen gainean.

1. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote garatu dezala eta aurkeztu dezala legegintzaldi honetan mugikorretarako aplikazio bat, zeinak nekazaritza eta abeltzaintzaren sektorearentzat interesekoak diren kontuen berri emango duen, eta zeinak jasoko dituen Arabako nekazaritzaren sektoreko eragile guztiekiko loturak.

2. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote eguneratu izan dezala bere web gunea, eta prestakuntza eman diezaiela sektorean lan egiten duten pertsoneri, egungo lanabesekin dokumentazio guztia erabili eta izapidetu dezaten; hala, Aldundiaren lan teknikoa erraztuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko uztailaren 11

Presidentea

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA